



Busturiko  
Udala



# Bandoa

## Udal Adierazpena

Azken urteetan Euskal Herrian bake haizeak zabaltzen ari dira. ETAren behin betiko su-etenak eskenatoki berri baten aurrean jarri gaitu. Ondorioz, zauria itxi eta sendatzeko garaia den hein berean, zauriaren jatorriari heltzeko sasoia ere bada. Erabakitzeko eskubidea daukagu eta eragiten gaituzten arlo guztietan erabaki behar dugu, etorkizunerako oinarrien jabe izan behar dugu. Beste garai batzuetarako eraikitako errezetak gaur egun ez dira osasungarri eta, beraz, salbuespeneko legedia bertan behera utzi behar da.

Guzti horregatik, ez dugu ulertzen nola den posible pankarta bat jartzeagatik pertsona bat kartzelarako bidean jartzea, are gutxiago "bilatze eta atxilotze" agindua ematea. Etorkizunerako oinarriak ezin ditugu bidegabekeria honen gainean eraiki. Espetxea zigorretan gogorrena da, beraz, ondo neurtu behar da bere erabilera.

**Guzti honegatik Ertzaintzari Jone Amezaga bilatu eta atxilotzeko egindako txostenarekin atzera egiteko eskatzen diogu eta, beraz, epaileari "bilatze eta atxilotze" agindua bertan behera uzteko eskatzea.**

Bestetik, **Jone Amezaga espetxeratzeko ebazpena bertan behera uzteko eskatzen dugu.** Inork ezin baitu ulertu pankarta bat jartzeagatik inor espetxeratzea.

Bide batez, **gure babesa eskaintzen diogu Jone Amezagari eta bere familiari** egunotan pairatzen ari den bidegabekeriagatik.

Estos últimos años en Euskal Herria se están extendiendo aires de paz. El alto al fuego definitivo de ETA nos ha puesto frente a un nuevo escenario. Es tiempo de cerrar las heridas, y también tiempo de conocer el origen de las heridas.

Tenemos derecho a decidir y tenemos que decidir en todos los temas que nos afecten, debemos de sentar las bases del futuro. Las recetas de otras épocas hoy en día no sirven, y por tanto deben derogarse las leyes de excepción.

Por todo ello, no entendemos cómo es posible que por colocar una pancarta se envíe a una persona a la cárcel, y menos todavía que se dicte una orden de busca y captura. Los pasos hacia el futuro no los podemos construir sobre esta injusticia. La cárcel es el más duro castigo, por ello, se debe medir bien su utilización.

Por todo ello, pedimos a la Ertzaintza que retire el informe de encarcelamiento de Jone Amezaga y en consecuencia pedir al Juez que anule esa orden de busca y captura.

Por otro lado pedimos que se anule la orden de encarcelamiento de Jone Amezaga, ya que nadie entiende que por poner una pancarta alguien sea encarcelado.

Al mismo tiempo, ofrecemos nuestro apoyo a Jone Amezaga y a su familia por la injusticia que están sufriendo estos días.